

## Xedapen Orokorrak

### JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

#### 1814

57/1996 DEKRETUA, martxoaren 26koa, Hirugarren Munduaren Garapenean Lankide Izateko eta Laguntzeko Fondoa Kudeatzeko Batzordea eta horri Laguntzeko eta Sorospena Eskaintzeko Batzorde Teknikoa arautzen duen Dekretua aldatzeko dena.

Aldatu nahi den dekretuan arautzen diren organoen etengabeko jardunak agerian utzi du horien antolaketa-ko zenbait alderdi berrikusi beharra eta beste gai batzuk argitu beharra; horrela, berezko dituzten helburuak hobeto betetzeko behar diren operatibotasuna eta eraginkortasuna areagotzeko.

Aldaketa horiek Hirugarren Munduaren Garapenean Lankide Izateko eta Laguntzeko Fondoa Kudeatzeko Batzordeak proposatu zituen 1996ko urtarrilaren 17an egindako bileran.

Ondorioz, Lehendakaritzaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1996ko martxoaren 26an egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, hauxe

#### XEDATU DUT:

*Lehenengo atala.*– Apirilaren 11ko 233/1995 Dekretuaren 1. atala aldatzea (»Hirugarren Munduaren Garapenean Lankide Izateko eta Laguntzeko Fondoa Kudeatzeko Batzordea«).

Dekretu horretako 1. atala horrela idatzita geratu da:

«1. atala.– Hirugarren Munduaren Garapenean Lankide Izateko eta Laguntzeko Fondoa Kudeatzeko Batzordea.

1.– Arautu egiten da Hirugarren Munduaren Garapenean Lankide Izateko eta Laguntzeko Fondoa Kudeatzeko Batzordea, urtarrilaren 30eko 18/1990 Dekretuz sortua.

2.– Kudeatzeko Batzordea horrela osatuko da:

Lehendakaria: Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia. Berori gaisorik edo kanpoan egonez gero eta, oro har, legeak ezartzen dituen arazoietako bat suertatzen bada, bere eginkizunak organo horretako Lehendakariordetzako ordezkari batek egingo ditu.

Batzordekideak:

– Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeko lehendakaria.

– Sailburuorde maila duen Eusko Jaurlaritzako Lehendakariordetzako ordezkari bat.

– Sailburuorde maila duen ordezkari bana sail haue-  
tatik

## Disposiciones Generales

### PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

#### 1814

DECRETO 57/1996, de 26 de marzo, de modificación del Decreto por el que se regula la Comisión Gestora del Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo del Tercer Mundo y la Comisión Técnica de Apoyo y Asistencia a la misma.

El funcionamiento continuado de los órganos regulados en el Decreto que se procede a modificar ha puesto de manifiesto la conveniencia de revisar algunos aspectos de su organización y aclarar expresamente otros extremos en aras de la operatividad y eficacia necesaria para el mejor cumplimiento de los fines que tienen asignados.

Estos cambios han sido propuestos por la propia Comisión Gestora del Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo del Tercer Mundo en su sesión de fecha 17 de enero de 1996.

Por lo anterior, a propuesta de la Presidencia, previa deliberación y aprobación del Gobierno en su sesión del 26 de marzo de 1996,

#### DISPONGO:

*Artículo primero.*– Modificación del artículo 1 del Decreto 233/1995, de 11 de abril (»La Comisión Gestora del Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo del Tercer Mundo«).

El artículo 1 del citado Decreto queda redactado de la siguiente forma:

«*Artículo 1.*– La Comisión Gestora del Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo del Tercer Mundo.

1.– Se regula la Comisión Gestora del Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo del Tercer Mundo, creada por Decreto 18/1990, de 30 de enero.

2.– La citada Comisión Gestora tendrá la siguiente composición:

Presidente: El Secretario General de Acción Exterior. En caso de ausencia o de enfermedad y, en general, cuando concurra alguna causa legalmente establecida, será sustituido en sus funciones por el representante de la Vicepresidencia en este órgano.

Vocales:

– El presidente de la Comisión de Derechos Humanos del Parlamento Vasco.

– Un representante de la Vicepresidencia del Gobierno Vasco con rango de Viceconsejero.

– Un representante del Departamento de Hacienda y Administración Pública del Gobierno Vasco con rango de Viceconsejero.

- Ogasun eta Herri Administrazio Saila
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
- Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Saila

- Foru-diputatu maila duen ordezkari bana Foru Ahaldundietatik.

- Garapenerako lankidetzaz-alarreko arduraduna. Honek zuzendari maila izango du eta idazkari lanak egingo ditu.

3.- Bileretara joan ezin direnean, Kudeatzeko Batzordeko kideek eskuordetza eman dezaioke ordezkari duten organo edo erakundeko beste pertsona bati, Batzordeko bileretara joateko.

*Bigarren atala.* - Apirilaren 11ko 233/1995 Dekretuaren 2. atala («Egitekoak») aldatzea.

Dekretu horretako bigarren ataleko hirugarren idazkia kendu eta horren ordez hau jarriko da:

«3.- GLILFen pentzutan urtero ematen diren laguntzak esleitzeko proposamena egitea, Garapen Lankidetzarako zuzendariaren irizpena jaso ondoren».

*Hirugarren atala.* - Apirilaren 11ko 233/1995 Dekretuaren 3. atala aldatzea («Laguntzeko eta Sorospena eskaintzeko Batzorde Teknikoa» izenekoa).

Dekretu horretako hirugarren ataleko hirugarren idazkia kendu egingo da.

*Laugarren atala.* - Apirilaren 11ko 233/1995 Dekretuan gehigarritzko xedapen bat sartuko da.

Hona hemen gehigarritzko xedapen horren testua:

#### GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Hirugarren Munduaren Garapenean Lankide Izateko eta Laguntzeko Fondoa Kudeatzeko Batzordearen eta horri Laguntzeko eta Sorospena Eskaintzeko Batzorde Teknikoaren funtzionamendua arautzeko kontutan hartuko da kide anitzeko organoetarako Herri-Administrazioen Lege-Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. idazpuruaren II. atalburuak xedatzen duena».

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1996ko martxoaren 26an.

Lehendakaria,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

- Hacienda y Administración Pública
- Educación, Universidades e Investigación
- Comercio, Consumo y Turismo

- Un representante de cada una de las Diputaciones Forales con rango de Diputado Foral.

- El responsable del área de Cooperación al Desarrollo con rango de Director, que ejercerá además funciones de Secretario.

3.- Los miembros de la Comisión Gestora, cuando no sea posible su asistencia, podrán delegar en otra persona del órgano o Institución que representan su participación en las reuniones de dicha Comisión».

*Artículo segundo.* - Modificación del artículo 2 del Decreto 233/1995, de 11 de abril («Funciones»).

El artículo 2 del citado Decreto queda modificado en el sentido de sustituir su apartado tercero por el siguiente texto:

«3.- Proponer la adjudicación de las ayudas anuales con cargo al FOCAD, previos los informes correspondientes del Director de Cooperación al Desarrollo».

*Artículo tercero.* - Modificación del artículo 3 del Decreto 233/1995, del 11 de abril («La Comisión Técnica de Apoyo y Asistencia»).

El artículo 3 del citado Decreto queda modificado en el sentido de suprimir su apartado tercero.

*Artículo cuarto.* - Adición de una «Disposición Adicional» en el Decreto 233/1995, de 11 de abril.

Se inserta una Disposición Adicional con el siguiente texto:

#### DISPOSICIÓN ADICIONAL

El funcionamiento de la Comisión Gestora del Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo del Tercer Mundo y de la Comisión Técnica de Apoyo y Asistencia se regirá por lo dispuesto para los órganos colegiados en el Capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común».

#### DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 26 de marzo de 1996.

El Lehendakari,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.